

1. DESKRIBAPENA

Durango BHI ikastetxeko Batxi 2.mailako ikasleak gara: Jone Iribecampos, Haizea Murgoitio, Maider Fernandez, Haizea Alvarez eta Markel Inunciaga.



Sartinnova plataformaren bidez, gure etorkizunerako sortutako proiektua aurkeztu nahi dizuegu.

Gure proiektuaren barruan, sukaldaritzako tailerrak eskaintzea proposatzen dugu, elikadura osasuntsua eta orekatua sustatzeko. Jarduera hauek adin desberdinetara egokituta egongo dira: ume txikientzat, 3. adinekoentzat eta baita egoitzetan dauden pertsonentzat ere.

Horrez gain, hileko menuak sortuko ditugu, jendeari eguneroko elikadura antolatzen eta aniztasuna izaten laguntzeko. Menu hauek sare sozialen bidez zabalduko dira.

Proiektuak ingurumenarekiko konpromisoa izango du, elikadura jasangarria bultzatuz eta bertako, km 0 produktuak erabiliz. Horrela, herriko dendak sustatu eta gastuak murriztea lortuko dugu.

Azkenik, erosketa-zerrenda merke eta osasuntsuak eskainiko ditugu, jendeari zer erosi eta nola aurreztu azaltzeko, elikadura osasuntsua alde batera utzi gabe.